

# ek!

eta kitto!  
euskara elkarteak

2025eko otsailak 7 · 1342 zenbakia



## HERRI ZAINZAILEN BURU BERRIA

**AZKEN EGUNAK**

### MERKEALDIA

# 2MÓ 189€

lehen 229€

erreflexuen aurkako  
betaurreko progresiboak

Konsumitzailearen erabakiaren erantzuleak.



## MULTIÓPTICAS

ALFA 10018


943 20 05 22  
Bidebarrieta, 2. EIBAR



eskatu hitzordua  
WhatsApp bidez

[www.multiópticas.com](http://www.multiópticas.com)



 **Neinor** HOMES  
ARRATE HOMES • EIBAR

**EZ PENTSA  
BIZI EZAZU!**



**ZATOZ PISU PILOTUA IKUSTERA**

**Obra berriko etxebizitzak:**  
Gimnasioa | Gourmet aretoa  
Garajea | Trastelekua



**900 11 00 22 • [neinorhomes.com](http://neinorhomes.com)**

**zarelakogara**

**EGIN ZAITEZ BAZKIDE**

**URTEKO KUOTA**

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Umeak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatuenak	20 €	6 €	14 €
Langileak	50 €	15 €	35 €

*Norberak nahi duen kopurua (horri ere errenta aitortuena %30 itzuliko zaio)*

  
euskara elkarteak

Tel. 943 20 09 18 [elkarteak@etakitto.eus](mailto:elkarteak@etakitto.eus)  
[www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus)

# Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Kandido Uranga eta Inazio Tolosa aktoreek 'Gabriel Arestirekin' antzezlan aularatu dute. Horretarako, Pedro Alberdik idatzitako 'Gabriel Aresti Eibarren' ipuina hartu dute oinarri, idazle bilbotarrak gurean bizi izan zituenak gogoratuz.



#### ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Belen Ulazia eta

Ander Fernandez

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALEKO ARGAZKIA

Silbia Hernandez

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



# Eskutitzak



## Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarreak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratuzten diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzekeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakziwoa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

# Hortik esanak



Arrak emeak baino handiagoak diren ideiak, orokortua bada ere, ez du oinarri handirik. Mamiferoen artean, hori gertatzen zaien espezieak ez dira %45etik pasatzen. Espezie gehien-gehienak monomorfikoak dira: arrek eta emeek berdin neurtzen dute. Eta horietako %15ean, gainera, emeak arrak baino handiagoak dira. Generoaren kasuan, gauza bera: binarioa erosoago egiten zaigu, naturaren kaosean lasaitu egiten gaitu. Zeinek daki Polinesian zazpi genero onartzen dituztela? Gauza bera sexuaren plastikotasunak eskaintzen dituen aukerei begira. Guretzat finkoa dena beste kriatura batzuetan askoz flexibleagoa da. Hor dugu sator arruntaren kasua: erreproduktzio sasoiaren bere obarioek obuluak sortzen dituzte eta emeak dira, baina sasoi horretatik kanpo bere gonadaren zati bat uzkurtu eta testikulu-ehunak puztu egiten zaizkio, testosterona mordoa sortu eta arra bihurtzeraino.

LUCY COOKE, zoologoa

Bilduko botoemaileen %91'3 tipula daraman patata-tortillaren aldekoak dira; EAJ-PNV-ko gehiengo handi batek, aldiz, tipularik gabekoaren alde egingo luke.

CIS (Ikerketa Soziologikoen Zentroa)

Orain dela 30 edo 50 urteko beharrak eta gaur egungoak oso desberdinak dira. Momentu honetan superjoera bat ikusten ari naiz eta pixka bat hater nago: jende batek etxe bat erosten du, eraberritzen du eta sukaldea eta egongela batera planteatzen ditu. Zergatik egiten du hori? Hor egiten den irakurketa da sukaldea etxebizitza eta familia tradizionalaren espazio erreproduktiboan izan denez, horren deuseztatzea dakarrela erreformak. Agian nire iritzia da, baina joera bilakatu da sukaldea eta egongela bateratzearena, ez dagoenean benetako pisuzko arrazoirik. Aldeko eta kontrako gauzak zerrendatuko banitu, kontrako gauza gehiago zerrendatuko nituzke aldekoak baino.

ANDER ZANGITU, arkitektoa

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**PEKO(RO)TZ** → Ganaduaren gorotza, kaka. Berez, abelgorriena da bakarrik, baina gaur egungo erabilera pekotza edozein animaliarena da. "Pekorotza ez dok higuigarrixa, dana bedarra dok".

**PELAJE** → Itxura txarra. Gaztelerazko 'facha, pinta'. "Pelaje ederrian nago ointxe iñora agertzeko!".





Idurre Iriando

**Farmaziak**

<b>BARIXAKUA 7</b>
<b>EGUNEZ   Mendinueta</b> (Urkizu, 6)
<b>ZAPATUA 8</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberria, 7)
<b>DOMEKA 9</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberria, 7)
<b>ASTELEHENA 10</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>MARTITZENA 11</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberria, 7)
<b>EGUAZTENA 12</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>EGUENA 13</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)
<b>BARIXAKUA 14</b>
<b>EGUNEZ   Lekunberri</b> (Isasi, 31)

**GAUEZ BETI,** 2025ean,  
Lekunberri (Isasi, 31)

**Telefono jakingarriak**

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

**Hildakoak**

- **Maria Teresa Barinaga Egia.**  
86 urte. 2025-01-26.
- **Jose Ramon Iriarte Sasiain.**  
66 urte. 2025-01-28.
- **Mariana Elgezua Zabaleta.**  
100 urte. 2025-01-29.
- **Begoña Zorraquin Berrizbeitia.**  
73 urte. 2025-01-29.
- **Petra Martin Bello.**  
89 urte. 2025-01-30.
- **Piadosa Vazquez Lamelas.**  
97 urte. 2025-01-30.
- **Lourdes Alberdi Sarasua.**  
80 urte. 2025-02-01.
- **Remedios Palomino Rodriguez.**  
88 urte. 2025-02-01.
- **Iban Lezea Artamendi.**  
62 urte. 2025-02-02.
- **Ander Kobeaga Benedicto.**  
87 urte. 2025-02-02.
- **Begoña Agirre Basterretxea.**  
96 urte. 2025-02-02.
- **Pedro Sarasketa Pagoburu.**  
88 urte. 2025-02-03.
- **Tomasa Arrieta Zabaleta.**  
92 urte. 2025-02-03.



## Lan-baldintzak hobetzeko eskatzen ari dira Eibar BHI-ko irakasleak

Eibar BHIko irakasleek elkarretaratzeak egin dituzte hileroko, azken bariakuetan, irakaskuntza publikoaren aldeko grebaren harira. Ikastetxetik azaldu digutenez, “irakasleon lan baldintzak hobetzeko eskatzen ari gara. Ordezkoen baldintzak ere asko okertu direnez, haiek ere lehengora itzultzea eta hobetzea, azken urteetan gehitu zaigun neurritz kanpoko burokrasia murriztea, eta hezkuntzarekin dagoen harremana zuzeneko izatea eskatzen dugu”. Egoera konpondu bitartean, hileroko elkarretaratzeak egiten jarraituko dute.

## Primerako harrera izan du Goi Argik estreinekoz antolatu duen San Blas lehiaketak

Puntu bakarrarengatik eraman zuen lehiaketako lehen saria Marisa Amutxastegik, eta bigarrena Lola Valver izan zen. Epaimahaiak ez zuen lan erraza izan domekan, horrenbeste *sanblas* artean onena aukeratzeko.



Goian, irabazleak, eta behean, berriz, epaimahaikideak, San Blas artean. CONCHIVILA

## Ipurua, Urki eta Beheko Tokia nagusien egoitzek ENE! izeneko elkarteak eratu dute

Gaur egun Eibarren dauden lau nagusi elkarteetatik hiruk (Ipurua, Urki eta Beheko Tokia) elkarte berria sortzea erabaki dute, hainbat batzar egin eta gero. Horrela, Untzaga gizarte zentroa izan ezik, beste hiru jubilatutuetxeak ENE! (Eibarko Nagusien Elkarteak) izeneko osatzera pasatuko dira laster. Elkarte berritik adierazi digutenez, “oraindik elkarteak sortzeko prozesuan gaude, baina datozen hilabeteetan eratu da”. Behin-behineko logotipo modura erabiliko dutena ere helarazi digute, herritarren artean ezagutzera emateko.



Eibarko Nagusien Elkarteak

## Hilerrian egin diren ehorzketak erdira jaitsi dira azken hamarkadan

Ehorzketen eta nitxoeren erabilera erdira jaitsi da azken hamarkadan Eibarren. Horrela, 2015ean heriotzen %22 bazen, gaur egun %11koa da kopurua, Vanessa Hortas zinegotziak Radio Eibarren azaldu zuen bezala.



## Unbeko taberna zabaldu dute berriz

Eguaztenaz geroztik, berriro zabalik dago Unbeko kirol-gunean dagoen taberna, Eibarko Udalak establezimenduaren emakida bi urterako esleitu ostean. Taberna martitzenetik barixakura 11:00etatik 22:00etara egongo da martxan, eta asteburuetan 09:00etatik 22:00etara. Astelehenetan itxita egongo da. Horrela, jendearentzako arreta bermatuko da jende gehien biltzen den uneetan. Lizitazio-fasean ostalaritzaren sektoreko hainbat ekintzailek eta enpresek egin zituzten proposamenak.



## Herritar guztiak deitu ditu Zaldibar Argituk hondamendiaren bosgarren urteurrenean

Atzo bete ziren bost urte Eitzagako zabortegea amildu zela eta, hondamendia gogoan, Zaldibar Argituk ekitaldia antolatu du: “Otsailaren 9an, domeka, 12:30ean Eitzagan batuko gara Joaquin Beltran eta Alberto Sololuze gogoratzeko, eta erantzukizunak eskatzeko. Dei egiten diegu herritarrei bertaratu daitezen”. Zaldibar Argitu-tik salatu dutenez, “Euskal Herriko hondamendi ekologiko handienetakoa diru goseak eragin zuen, labur esanda. Enpre-

sarien diru goseak. Baina ez horrek bakarrik. Enpresariak egin zituzten astakeria guztiak, zabortegearen jardura kontrolatu behar zuen Eusko Jaurlaritzak ahalbidetu zielako egin zituzten. Eusko Jaurlaritzako inork ez du ardura txikiena ere bere gain hartu”. Epaitegietan dagoen auzia oraindik instrukzio fasean dagoela ikusita nekatuta daudela ere esan dute: “Zenbat denbora behar dute instrukzioa amaitu eta ondorioak kaleratzeko? Gogaituta gaude”.



**Iban  
Lezea Artamendi**

2025/02/02

ESKERRIK ASKO  
une latz hauetan gurekin  
egon zareten lagun eta  
familiako guztiol.

- ETXEOAK -





**Pedro  
Sarasketa Pagoburu**

2025/02/03

Mendi gailurretik haizea dator, zure ahotsa darama oraindik, bizitzan utzi diguzun argi horrek ez du bizitza ilunduko inondik. Aitxixa: zure irribarrea beti egongo da gurekin, maitasunetz betetako bidea argia da guretzat beti.

- ZURE BILOBAK -





# 410 'ikasenpresa' erakutsiko dituzte Lanbide Heziketako ikasleek

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren "ITLENT" Euskadiko Lanbide Heziketako Talentuaren Euskal Institutuak antolatuta, eta Eibarko Udalaren laguntzarekin, XIV. Ikasenpresa Azoka hartuko du gure herriak datorren astean, hamalagarren urtez jarraian. Otsailaren 13an, 10:00etatik 13:00etara Untzagan eta Txaltxa Zelaian ipiniko duten azokan 2.000 ikaslek baino gehiagok erakutsiko dituzte beraien produktu eta zerbitzuak.

Aste honetan egin dute ekimenaren aurkezpena udaletxean, eta bertan egon dira Inge Gorostiaga Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Eraldaketa Digitalaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaria, Jose Ramon Gomez "ITLENT"-eko Zuzendari Exekutiboa, Ergiña Urzelai Kultura Ekintzailearen arduraduna iTlent-en, Vanesa Hortas Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Berrikuntzako zinegotzia, eta Jon Iraola Eibarko alkatea.

Eguenean egingo den Euskadi mailako azokan 410 *ikasenpresa* aurkeztuko dituzte Lanbide Heziketako ikasleek. EAE-ko 50 Lanbide Heziketa zentroetatik etorriko diren bi mila bat ikasle eta 102 irakasle elkartuko ditu ekimen honek, eta klasean landu dituzten ideia ekintzaileak bertatik bertara ikusteko aukera izango dute herritarrek. Nabarmendu dutenez, "*Ikasenpresa* hauek klasean ikasten ari diren lanbide-arloekin lotuta egongo dira, beti ere pertsonen edo haien ingurunearen bizi-kalitatea hobetzera bideratuta".

Enpresa txiki bat sortzea eta abian jartzea. Hori da *Ikasenpresak* Euskadiko Lanbide Heziketako erdi-mailako eta goi-mailako ikasleei planteatzen dien erronka. Inge Gorostiagak "enpresa bat sortzeko eta martxan jartzeko ikasleei eskaintzen zaien laguntza" positiboki baloratu du. Ikasleek FP Euskadiko eredu metodologikoari jarraitzen diotela ere azaldu du: "Eredu horretan irakasle-taldearen laguntza funtsezkoa da. *Ikasenpresa* enpresa-simulazio bat da, baina eskaintzen den produktua edo zerbitzua benetakoa da".



Aurkezpen ekitaldian Debabarreneko ikasle batzuk egon ziren, beraien ikasenpresak nolakoak diren azaltzen. SILBIA HERNANDEZ

## Gure bizitzak eta ingurumena hobetzera bideratuta dauden era guztietako 'ikasenpresak'

Azokan erakutsiko dituzten produktuak eta zerbitzuak askotarikoak izango dira, "gehienak honako arlo hauetan garatutakoak: kirol jarduera fisikoak, industrialak, irudi pertsonala, ostalaritza eta turismoa, informatika, komunitatearentzako zerbitzuak, arte grafikoak, nekazaritza eta arrantza, zerbitzuak, farmazia eta parafarmazia, besteak beste".

Aurtengo *ikasenpresen* artean egongo diren batzuk ere aipatu dituzte: bere burua erregulatzeko kanpoko eta barruko tenperatura detektatzen duen zurezko etxe bat, igeltsuz eta metalezko azkoinez diseinatutako bitxi-denda bat, euria hastean olana batekin estaltzen den esekileku elektriko bat, mugikortasun urriko pertsonentzako joko robotak, eta esklerosi anizkoitza eta hizketarako arazoak dituzten haurrentzako aisialdi-zentroa.





## Mendaroko Ospitaleak gela berria du ospitaleratu gabeko tratamenduak behar dituzten pazienteentzat

Debarreneneko ESI-tik jakinarazi dutenez, “zerbitzu hori zabaltzeak, bi ohe, sei besaulki eta erizaintzako talde profesional berri bat (bi erizain eta bi laguntzaile) gehituta, ospitaleetako anbulatorio-ahalmena %50 handitzea ahalbidetuko du, besteak beste, injekzio/infusio, odoluste terapeutiko edo transfusioetako tratamenduetan”. Adierazi dutenez, baliabide berriek, espazioaren erositutasunak eta ordutegi zabal eta etengabeak (08:00etatik 21:00etara) ematen den zerbitzua- ren kalitatea hobetzea dute helburu. 2024an 730 pertsona artatu ziren eguneko ospitalizazioan, eta 1.440 tratamendu jaso zituzten, “batez beste 5 ordu baino gutxiagoan”. Mendaro Ospitalean zerbitzu hori handitzeko asmo handiko proiektu baten lehen urratsa da hau.

zioaren erositutasunak eta ordutegi zabal eta etengabeak (08:00etatik 21:00etara) ematen den zerbitzua- ren kalitatea hobetzea dute helburu. 2024an 730 pertsona artatu ziren eguneko ospitalizazioan, eta 1.440 tratamendu jaso zituzten, “batez beste 5 ordu baino gutxiagoan”. Mendaro Ospitalean zerbitzu hori handitzeko asmo handiko proiektu baten lehen urratsa da hau.

## Ia bost mila bisitari hartu zituen iaz Eibarko Museoa

Armagintzaren Museoa bisitakopuru nabarmena izan du 2024. urtean, 4.865 pertsona, hain zuzen ere, iazko urteari dagokion txostena jasotzen duenez. Datuen arabera, bisitarien %39 beste erkidego batzuetatik etorritakoak dira, kopuru handiagoa bertako bisitariena baino (%25). Era berean, atzerritar ugarik bisitatu dute museoa (%5); datua museoaren estatuko zein nazioarteko proiektzioaren erakusgarri da. 2024an bi erakusketa nabarmendu ziren bereziki. *Txirrindulari. Jose Zugasti* izenekoa, 1.697 bisitarekin; eta *Museoko ertz zorrotzak. Museoko arma zuriak* erakusketa, 2.108 bisitarekin. Eibarko Udalak lanean dihardu etorkizunean Armagintza Museoa lehengo El Corte Ingleseko lokaletara, Ego Gain kalera lekualdatzeko. Han egonda, museoa inguruko herrietako kultura-erreferente bihurtu litekeela uste dute. Zentzu horretan, Jon Iraola alkateak adierazi du kokapen berriak ahalbidetuko lukeela pieza gehiago erakustea eta zerbitzu hobek eskaintzea.



### Arrate Iriondo Etxeberria

**1. URTEURRENA**  
2024/02/10

“Beti nere  
gogoan.  
Asko maite  
zaitut”

- ZURE LAGUNA -



### Remedios Palomino Rodriguez

2025/02/01



GURE ESKERRIK  
BEROENA jasotako  
maitasun-adierazpen  
guztiengatik.

- ROCA FAMILIA -



# Santa Agedaren omenezko koplak eta doinuek bete zituzten kaleak

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan santaeskean ibiltzeko ohiturak geroz eta indar gehiago dihardu hartzen gure herrian. Horrela, martitzenean goizetik hasi ziren koplak kantatzen, aurten kalera irten baitira herriko ikastetxeetako haur asko, eskolan abestu beharrean. Eta iluntzean ere giro polita sortu zen: Eibarko Musika Eskolako txistu ikasleak, Enrique Montero irakaslearekin batera, Santa Ageda doinuak jotzen aritu ziren erdialdeko kaleetan. Eta Eibarko Musika Eskolak antolatutako kalejiran, berriz, hainbat taldek egin zuten bat: Kaleetan Kantuz, DBOR Debabarreneko Orfeoia, Sostoa, Juan Bautista Gisasola haurren abesbatza eta Ipuruako Merkatu Plazako Koralito, besteak beste. Urkizuraino egin zuten kalejira, ondoren Edozer elkarte gastronomikoan afaltzeko.





# Sanblas opilak bedeinkatzeko ohiturari jarraitu zaio aurten ere

Urtero bezala, askok bedeinkatzera eraman dituzten sanblasen eraginez, anis usainarekin bete ziren Eibarko eliza guztiak astelehenean, San Blas egunean. Zalantza barik, Eibarren ohitura zaharrak agintzen du oraindik ere, eta askok San Blasengana jotzen dute babes bila, horrela eztarriko gaitzik ez dutela harrapatuko sinistuta.



ARGAZKIAK





# Mito baten bizipenak Eibarren

BIDEOA



Gabriel Aresti mito bat da Pedro Alberdi idazle eibartarrantzat. Horregatik, orain dela 25 urte inguru mitoa Eibarren bizi izan zela jakin zuenean, 'Gabriel Aresti Eibarren' ipuina idatzi zuen. Orain, Kandido Uranga eta Inazio Tolosa aktoreek ipuin hori hartu dute ardatz 'Gabriel Arestirekin' antzezlanaren sortzeko. Zumaian, Euskaltzaindian (Bilbon) eta Asteasun antzeztu dute eta data gehiago dituzte zehaztuta, baina momentuz Eibarren ez da ikusteko aukerarik egongo.

**E**ibarren jaio eta Bilbon urte morderka bizi ondoren, Zumaia du bizitoki gaur egun Pedro Alberdik. "Emaztea eta biok udatiarrak izan gara beti bertan", esan digu. Beraz, ez da toki ezezaguna beretzat. Kostan pasa dituen udetan lagunak ere egin ditu, tartean Kandido Uranga aktorea, eta urteetako harremana du berarekin.

Erretiratuta egon arren, oraindik aktore lanetan jarraitzen du Urangak eta, horrez aparte, bestelako errezitaldiak ere egiten ditu tarteka. Jon Miranderen inguruko bat egin izan du, baina Uranga Gabriel Arestirekin tematuta egon da beti. Bilbotarraren 'Harri eta herri' liburuan aurkitzen den 'Q' poema taula gainera eraman nahi zuen, baina ez zuen aurkitzen nola. "Q' poema 'Harri eta Herri' liburuko poema luzeena da eta Jorge Oteizarekin duen (Arestik Jurgi esaten dio) elkarriketa moduko bat da, besteak beste. Kandidok 'Q' poemari heldu zion, antzezteko edo errezitatzeko



prestatzen hasi zen, baina konturatu zen motz eta nahiko monokorde gelditzen zitzaiola errezial baterako”, kontatu digu Alberdik.

Urangak buruari bueltak ematen jarraitu zuen eta, Alberdiren berbetan, “lagunekin komentatzerakoan, esan zioten gaur egungo gazteek ez dutela jakingo Gabriel Aresti nor den ere. Atzokoa da, baina gabiltzan abiaduran, Jon Mirande, Aresti eta horrelako autoreak antzinakoak dirrela dirudite”. Beraz, Aresti gaur egunera ekartzeko beharra ikusi zuen eta bat-batean argia piztu zitzaion: “Badakit Pedro, zure ‘Gabriel Aresti Eibarren’ ipuina erabiliko dugu”, esan zion Urangak.

Ipuina ‘Kafka Bilbon’ (2002) ize-neko liburuan aurkitzen da, beste kontakizun batzuen artean, eta Bilbon aurkeztu zutenean, ahots sakoneko aktoreak pasarte batzuk errexitatu zituen, tartean ‘Gabriel Aresti Eibarren’ ipuinekoak. Buruko izkina batean geratu zitzaion iltzatuta eta proiektu horretarako baliagarria egingo zitzaiola okurritu zitzaion.

### Idazlea pertsona bihurtu

‘Gabriel Aresti Eibarren’ ipuina idazle bilbotarrak gure herrian egin zituen urteetan oinarritzen da, errealtate batetik abiatuz sentimentalki eta literaturaren ikuspuntutik Arestirentzat bereziki aparta suertatu zen egun bat kontatuz. Mitoa haragi bihurtzen du kontakizunak eta pertsona ezagutzeko balio du. Hain zuzen ere, Urangak behar zuena, ‘Q’ poemaren osagai bezala. “Arestiren egunerokoa kontatzen da ipuinean, intimitate bat”, Alberdiren berbetan.



Goian, Kandido Uranga eta Inazio Tolosa, ‘Gabriel Arestirekin’ antzezlaneko aktoreak. Behean, Pedro Alberdi idazle eibartarra. EKHI BELAR

Antzezlanerako osagaiak eskura edukita, prestatzea besterik ez zen geratzen. Horretarako, ‘Q’ poema Urangak pentsatuta bezala egiteaz gain, Alberdiren ipuina pixka bat moldatu zuten arlo biak uztartzeko. “Ipuinari antzerki-forma emateko beharra ikusi zuen Kandidok eta hor sartu zen Inazio Tolosa”, diosku Alberdik. Horrela, ‘Gabriel Arestirekin’ antzezlanean, Urangak narrazilearen lekua hartzen du eta Tolosak Arestiren papera egiten du.

Alberdik ere parte hartu zuen antzezlanaren moldaketan, nahiz eta esan digun ez zela aldaketa handirik egin behar izan. “Ipuinaren paragrafo pare batean bi eibartarren arteko elkarriketa agertzen da. Bata Rokandioneko enpresarioa da, Arestik han egin zuelako lan, eta Rokandiok eibarreraz hitz egiten dio. Beste pasarte batean, Aresti antzinako Itziartarran egon zen apopilo eta hango ugazabandareekin beste dialogo bat du, hori ere eibarreraz”, azaldu



Dagoeneko 'Gabriel Arestirekin' lanaren hiru saio eskaini dituzte eta badituzte data berriak zehaztuta. Momentuz, Eibarren ez da egongo.

digu Alberdik. Pasarteak eibarreraz idatzi zituen ipuinean, “baina nire modura”, eta antzezlanerako Koldo Zuazori eskatu zion eibarreraz dau-den pasarte horiek zuzen ipintzeko.

#### Kontablea Eibarren

Gabriel Aresti 1966an egon zen Eibarren lanean eta astegunetan bizitzen, emaztea eta hiru alabak Bilbon edukita, sasoi hartan ez zegoelako autobiderik eta egunero joan-etorrian ibiltzea oso nekagarria zelako. Txontako Industrias Rocandio enpresan egin zuen lan eta, esan bezala, Itziartarran egon zen apopilo. “Aresti Eibarren egon zela jakin nuenean, ezin nuen sinestu”, diosku Alberdik. Sasoi hartan, idazle eibartarrak bederatzi urte inguru zituen. “Pentsatzea agian kalean berarekin topo egin nuela... Arestirekin? Gure mitoarekin?”, diosku. Beraz, ‘Gabriel Aresti Eibarren’ ipuina “premia handi bati erantzuteko” idatzi zuen.

Alberdientzat Aresti “eredu bat” zen. “Haren literatura irakurtzen

## >>> 'Gabriel Arestirekin' antzezlanak Pedro Alberdiren 'Gabriel Aresti Eibarren' ipuinaren pasarteak jasotzen ditu

genuen, haren bizitza, egin zuena... Banekien Angel Zelaietak bere biografia idatzita zuela eta bertan agertzen da, bi lerrotan, 1966an Aresti Eibarren lanean egon zela”, azaldu digu. “Hori mauka da niretzat, altxor bat”, pentsatu zuen jakin zuenean.

Dena dela, ez zuen gaiaren inguruko informazio handirik eta Juan San Martinen atea jo behar izan zuen, Arestiren bizitzan oso garrantzi handia izan zuelako. Hain zuzen ere, San Martinek idatzi zuen ‘Harri eta Herri’ liburuaren hitzaurrea, besteak beste. Alberdik, oster, ez

zuen San Martinekin harremanik, baina aitak bai. “Juanitoren laguna zen eta bere partez joan nintzen. Sasoi hartan Hondarribian bizi zen eta autoa hartu eta bere etxera joan nintzen zapatu arratsalde batean. Lokomotor bat zen. Berbetan hasi zen eta iluntzera arte isildu ere ez. Mari Paz emaztea alboan zegoen eta zerbait esaten zuen. Harengatik oraindik han hitz egiten egongo ginateke”, gogoratzen du.

San Martinek esandakoak buruan gordeta itzuli zen eta, haritik tiraka, Arestik Eibarren bizitakoaren inguruko datuak pilatzen joan zen. Horrela jakin zuen, besteak beste, mito bilbotarra Rocandio enpresako administrazio burua izan zela. “Kontablea zen, baina harrezkerok idatzia zituen ‘Maldan behera’ eta ‘Harri eta Herri’ liburuak, besteak beste. 33 urterekin idazle konsagratua zen. Gainera, astero zuen polemikaren bat. Zeruko Argian, Anaitasunan... idazten zuen eta mundu guztiarekin haserre zegoen”, diosku Alberdik.



## Ituiño magoak aho zabalik utzi zituen Coliseoko ikusleak

Joan den barixakuan Imanol Ituiño magoa Eibarren izan zen ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Gure Zirkuko magoaren trikimailuek aho zabalik utzi zituen ikuskizunean zeuden haur zein helduak. Gogotsu jardun zuten gainera ikusleek, guztiak nahi baizuten magoaren laguntzaile izan. Liluratuta, magia inguratuta eta barre-algara artean arratsalde pasa polita igaro zuten Coliseo antzokira hurbildu ziren familiek. Gurasoak Berbetan eta Ongietorri programen barruan antolatatu zuten ikuskizuna ...eta kitto! Euskara Elkartek.



## Sanblas opilak egiten jardun dute Ongietorriko familiek

Zapatuan Ongietorri programako hainbat familia elkartu ziren ...eta kitto!-k eurentzat antolatutako sanblas opilen tailerrean. Edurne Zenarruzabeitia eskarmentu handiko "andereñoak" eman zuen ikastaroa, adi jarraitu zituzten Edurnek azaldutako pausoak eta pare bat orduko lanaren ondoren iritsi zen emaitza: sanblas gozo-gozoak. ...eta kitto!-k antolatzen du On-

gietorri harrera eta elkarbizitza-rako programa, kultur eta jatorri ezberdinetako pertsonen euskara eta euskal kultura eta ohiturak gerturatzeko helburuarekin. Horretarako, sanblas opilen tailerra bezalako ekintza osagarriez gain, asteroko saioak eskaintzen dizkie euskara elkarteak, ondo datorkien auzoetan, eta ordu eta erdiko saio dinamikoak egiten dituzte.



## Barixakuak Jolasianeko jolasak Txaltxa Zelain egingo dira gaur

Txaltxa Zelaik hartuko ditu gaur arratsaldean Barixakuak Jolasian ekimeneko jolasak, 17:00etatik 18:00etara. Otsaileko egutegiari ekingo dio horrela ekimenak. Hiru saio egingo dira hilabete honetan eta beste horrenbeste martxoan, 7an, 14an eta 21ean ohiko lekuetan: Txaltxa Zelai, Torrekua eta Urkizun.

# “Oso gustora egon naiz Udaltzaingoan, nere bizitzaren parte bat hemen geldituko da”

JAVIER ZIARAN • Eibarko Udaltzainburu-ohia



Azken sei urteetan Eibarko Udaltzainburua izan dena jubilatuta egon da urtarrileko azken egunean. Javier Ziaranek hogeita hamazazpi urte eta erdi eman ditu Eibarko udaltzain modura lanean. Erretiroa hartu baino pare bat egun aurretik egin diogu elkarrizketa, Udaltzaingoan egin dituen urteak nolakoak izan diren kontatzeko.

**A**zken sei urteak Udaltzainburu karguan eman eta gero, etapa berria hasiko du Ziaranek. Berak lagatako hutsunea Julen Saldiasek beteko du aurrerantzean. Udaltzainburu berria orain dela gutxi etorri da Eibarrera, baina aurretik eskarmentua dauka. Sortzez zarautzarra da Saldias, eta han hasi zen udaltzain lanetan. Hamabost urte egin ditu Zarautzen lanean, eta ondoren beste bi urte Deban, hango Udaltzainburu karguan. Esan digunez, gogotsu ekingo dio lan berriari.

## Nola hasi zinen udaltzain modura lanean?

Hasi nintzen orain dela ia 38 urte, 1987ko abuztuaren leian. Sei udaltzain berri hasi ginen batera, lau Eibarkoak, beste bat Ermukoa, eta seigarrena Bergarakoa. Hasteko, udaletxean bertan formakuntza txiki bat egin genuen, eta gero, segidan, uniformearekin kalera irten ginen. Hortik aurrera pixka bat denetarik egin dut Udaltzaingoan, ia postu guztietatik pasatu naiz, eta nire azken sei urteak izan dira Udaltzainburu moduan.

## Aldaketa handia dago udaltzain izatetik Udaltzainburu izatera?

Bai, desberdina da. Baina ni oso gustora egon naiz, ardura handia da, baina gustora egon naiz. Orain 47 udaltzain gaude plantillan, eta hori guztia zuzentzerako orduan batzuetan arazoak egoten dira. Eta gero, kalean gertatzen dena kudeatzea eta, ez da beti erraza izaten. Gainera, azken urteetan pandemia ere pasatu dugu, eta garai konplikatuak izan zen hori.

## Egia esan, Udaltzainburu moduan eman dituzun urteak ez dira lasaiak izan...

2019an hasi nintzen Udaltzainburu moduan, eta jarraian denetik pasatu zen. Hasi ginen Arragueta kalean bi eraikin jausita, azaroan izan zela uste dut; gero, jarraian, Zaldibarkoa gertatu zen, eta ia batera pandemia hasi zen.

## Pandemia garaian zuen lana egiteko nola moldatu zineten?

Ba ez zen erraza izan, ez horixe! Arauak, esate baterako, astero aldatzen ziren. Orduan, astero begiratu behar genituen arau berriak zeintzuk ziren, nola



antolatu jendeak horiek betetzeko, zalantzak egoten ziren, ez genekien nola kudeatu... Jendearentzat ere, gu erdian geunden: batzuekako motz gelditzen ginen, eta ez genuen ezer egiten, eta beste batzuentzat, berriz, isun pila bat jartzen genituen. Garai konplikatu izan zen, gazteek kalera irten nahi zuten... Baina, hala ere, badirudi orain dela ez dakit zenbat urte pasatu den zerbait izan dela, nahiz eta bakarrik pare bat urte pasatu diren.

**Azken urteetan, gainera, plantillan aldaketa handiak izan dituzue, jubilazio dezente tartean... Nola egin diozue aurre?**

Egia esateko, hori kudeatzea ez da lan erraza izan. Begira, azken hamabi urteetan pasatu dira ehun agente berri hemendik, Udaltzaingotik. Orduan, aldaketa pila bat egon dira. Jendea, gazteak joan egiten dira, berriak etortzen dira, urtero aldatzen ditugu batera ez dakit zenbat... Esate baterako, orain dela urtebete edo, hamabi lagun joan ziren batera, urte hasieran, eta etorri ziren denak berriak. Ni sartu nintzenez seitik lau Eibarkoak ginen, eta beste biak ingurukoak. Orain

gazteak etortzen dira eta mugitu nahi izaten dute, beraien herrira hurbildu.

**Lanbide guztietan bezala, zuenean ere belaunaldi aldatketari aurre egin behar izango diozue, ala?**

Bueno, kanpotik etortzen direnez ez dute ezagutzen herria, kaleak... Eibarko espirtua ere ez dute ezagutzen. Orduan, hilabete batzuk behar izaten dituzte ohitzen joateko.

**Izan ere, Udaltzaingoaren lan-poltsan aldaketa egon zen orain dela urte batzuk, ezta? Horregatik orain kanpotik datoz gehienak, ez lehen bezala...**

Bai, orain dena Arkautek kudeatzen du, hango akademiak. Udaltzaingoan sartzeko probak eurek egiten dituzte, eta Ertzaintzarako eta guretzat, berdina dira probak. Formakuntza ere han egiten dute, zazpi edo zortzi hilabete egoten dira, kurtsoa egiten. Eta gero, hona etortzen dira eta beste urtebete ematen dute praktikak egiten. Hori herri guztietako Udaltzaingoetan. Orduan, hori guztia aldatu egin da.

**Lehen nola izaten zen hori?**

Ba Udal bakoitzak ateratzen zituen bere probak, eta





Julen Saldias zarauztarrak beteko du aurrerantzean Ziarenen tokia,

**“Azken hamabi urteetan ehun agente berri pasatu dira hemendik, Udaltzaingotik. Hori kudeatzea ez da lan erreza”**

**“Segurtasunaren pertzepzioarena oso subjektiboa da, delituak pixkat igo dira, baina ez hainbeste”**

Elkarrizketaren bideoa ikusteko eskaneatu kodea



formakuntza ere bakoitzak bere modura egiten zuen. Lehen esan dudan moduan, guk udaletxean egin genuen formakuntza, pare bat astetan edo. Orain zortzi edo bederatzi hilabete egiten dituzte.

**Eta, horrekin batera, lehen aldiz pistolarekin ibiltzea tokatu zaizue.**

Hori ere! Hasieran ez zen erreza izan, denak ez geunden ados horrekin. Baina epaitegitik etorri zitzaigun agindua eta azkar ohitu gara. Honezkeron normalizatu egin da, eta momentuz ez dugu izan arazorik, ezta erabiltzeko premiarik ere.

**Hainbeste urte eta gero, herria bera, eta bertan bizigarenak, asko aldatu gara. Nola aldatu da Eibar zu lanean hasi zinenetik?**

Dena aldatu da asko. Ni sartu nintzenez arazorik larriena heroina zen. Oso gogorra izan zen, kalte handia egin zuen, ez bakarrik Eibarren, hemen inguruan gazte pila bat hil ziren... Hori gogorra izan zen. Orain kultura ezberdinak daude, kanpotik etorri den jende asko, herrialde askotatik, eta dena aldatu da. Kalean nola ibili, oinezkoak orain protagonista dira, lehen automobilak ziren jaun eta jabe.

**Sasoi batean trafikoak ematen zizuen buruko min gehien. Gaur egun zein da arazorik handiena zuentzat?**

Saihesbidea egin zenetik asko hobetu da herri barruko trafikoak, orain dela 40 urte Eibarren trafikoak kaos bat zen. Orain askoz ere arazo gutxiago dago zentzu horretan.

**Herritar askorentzat segurtasun eza omen dago herrian. Benetan hala da, ala uste oker bat da?**

Segurtasunaren pertzepzioa oso subjektiboa da. Datuek esaten dute delituek pixkat gora egin dutela, baina ez hainbeste. Beti egon dira arazoak lapurreta eta horrelakoekin, eta zoritxarrez beti egongo dira.

**Zer egingo duzu orain, jubilatu eta gero?**

Egia esan, bertigo pixkat ematen dit, ez pentsa! Baina egingo dut zerbait: kirol pixka bat edo. Ni beti egon naiz sartuta txirrindularitzan, proben antolakuntzan, Eibarko Txirrindulari Elkartearen... Orain horri eskeintzeko denbora gehiago izango dut.



LEIRE NARBAIZA

## Bost urte

Kandelarixo, San Blas, Santa Ageda bizperia, hartza esnatu dala... Otsailleko aste honek gogoratzeko moduko makinatxo bat egun dakaz. Sanblas opillen usaiñiak betetzen ditu egun hónek gure etxiak, espezialak dirala jakitzeko beste datu bat gehixago.

Oin bost urte, baiña, azken sanblas hondarrak amaitzeko geunkazela, Santa Ageda egunaren ostean etorri zan notizia: Eitzako zabortegia jausi zan.

Santa Ageda ostea. Bost urte dagueneko, eta atzoko moduan eguena izan zan tragedixarena. Hasieran luperixia izan zala pentsatu genduan, lur hutsa jausi zala autopistara. Gero etorri zan errealdadia, tonaka zakar zeguala bertan, asko arriskutsuak, gaiñera.

Bost urte pasau dira, eta denboriak eta osteko pandemixiak asko lanbrotu badau be, akordutik ez jaku desagertu egun hórretan bizi izandakua. Esango neuke ez dogula inoiz be ahaztuko.

Kontu guztien gaiñetik, nere eritzixan, abandonua izan zan gogorra. Abandonua bihargin bi desagertuta egon arren. Abandonatuta sentidu giñan, eta “bolantian” iñor ez zeguala konturatu.

Agintarixengan nekan konfiantza txiki ha zihero desagertu jatan, eta herrittarrok inporta ez gentsela konturatu nintzan. Latza da hori sentitzia, baiña halaxe izan zan, eta ondiokan be hori sentidu eta pentsatzen dot. Harrokerixia izan zan nagusi, prepotentzia, eta ez zeben errukirik agertu Joaquin eta Albertoren famelixiekin. Halako trantzia pasatzen ziharduenendako babesik egon ezik, ezin besteok ezer espero. Anker jokatu zeben, zelba momentu batzuetan.

Egun triste háretako sentimendua dira hórrrek, gestionatzeko gauzaez ziranak eragindakoak. Baiña problemia ondiokan ez da konpondu, etxe onduan dakagu, jakin barik zer gehixago egon leiken bertan, denporia pasau ahala zelan eratzungo daben mendi-magalak. Damokleseko ezpatia hortxe.

Eta ez deigun ahaztu ez dakigula zein dan erruduna, zerk eragin zeban tragedixia. Horregaittik, inportantia da otsailleko egun hórren akordua gordetzia ez eze, geure eziñegona azaltzia, barriro gertau ez dein.

Eitzagan dogu zitia domekan. Zaldibar argitu!

**“Inportantia da otsailleko egun hórrren akordua gordetzia ez eze, geure eziñegona azaltzia, barriro gertau ez dein. Eitzagan dogu zitia domekan. Zaldibar argitu!”**

# “Esperimentatzeko nahi batetik jarraitu ditut beste batzuetan hartu ez ditudan bide berriak”

OLATZ SALVADOR • Musikaria



Orain arteko lanetan erakutsitako talentu goxoari xehetasun aberats eta jostagarriak gehitu dizkio Olatz Salvador musikariak. Donostiako artistak ‘Zainak eman’ diskoa kaleratu zuen orain dela hilabete batzuk, bere hirugarren lana, eta orain zuzenean gozatzeko aukera izango dugu datorren barixakuan, hilak 14, 19:00etan, Coliseo antzokian.

**B**arruan darama talentua eta barrenak askatu ditu disko berrian Olatz Salvadorrek, bere nahiak eskatzen zion bideari jarraituz. Esplorazio horrek elektronika eta dantza doinuak aurkitzera eramán du eta gera daitezela, beste bolumen bat ematen diolako bere gozagarri den musikari.

**“Zainak eman’ izenburuak adierazpen fisiko eta intimoa dirudi. Zein da izenburuarekin lotutako sentimenduen oinarria?”**

‘Zainak eman’ esamoldearen esanahia susmatu da. Zain hitzaren bueltan gauzak bilatzen ibili naiz eta bere adiera ezberdinei garrantzia eman diet diskoaren abestien arabera. Izan daiteke itxaronaldi bat, zaina odola garraiatzen duen hodia izan daiteke, zaintzari lotuta egon daiteke, izan daiteke erroa... Esanahi asko eta oso interesgarriak zituela ikusi nuen. ‘Zainak eman’ bide horretan ezagututako esamolde bat da eta, atentzioa eman zidanez, izenburua hori izatea erabaki nuen.

**Zure ibilbidean bide berria zabaldu nahi zenuela esan izan duzu eta, diskoa entzunda, argi geratzen da hori, doinu elektroniko eta dantzarriak baititu. Nola sentitu zara bide berri horiek hartzen? Modu naturalean etorri da? Bilatua izan da?**

Aurreko lanetan arantza bat geratu zitzaidan. Erabakiak hartzen zoaz eta diskoak itxura bat edo beste hartzen du, baina beti gelditzen dira kanpoan sartzea gustatuko litzaizukeen gauza batzuk. Oraingoan, ostera, banekien besteetan hartu ez nituen bideak jarraitu nahi nituela, ez emaitza konkretua oso argi nuelako, baizik eta esperimentatzeko nahi batetik. Horregatik, Kataluniako estudio batzuetara joan nintzen eta bertako ekoizle batzuekin ibili naiz hilabeteetan zehar egonaldi batzuk egiten. Horrela iritsi naiz emaitza horretara.

**Behin bide horiek hartuta, zein genero edo estilotan esperimentatzea gustatuko litzaizuke?**

Gauza berriak probatzea gustatuko litzaidake eta eroso nagoena aukeratzea. Beti eduki dut kutsu malenkoniatsua, baina orain erritmoa eta dantza uztartzeko joera edo nahi handiagoa dut.

**Leire Vargas, Oihana Arana eta Izaro Bilbaorekin egin duzu lan abestien letra batzuk sortzeko. Nolako elkarlana izan da? Nola sentitu zara zure sorkuntza batean beste pertsona batzuei ardura hori ematean?**

Egia esan, horrek beti ez du funtzionatzen. Azkenean, letra bat egiten dudán momentuan, letrak beti dauka zentzua, baina batzuetan ez duzu lortzen zeure bilakatzea eta beste batzuetan bai. Orduan, beti ibiltzen naiz kezka horiekin. Beti oso jende baliotsua izan dut





'Zainak eman' da Olatz Salvadorren hirugarren diskoaren izenburua eta zuzenean ikusi ahal izango dugu Coliseo antzokian, hilaren 14an.

alboan eta, zerbaitek enkajatu ez badit, ez da niregatik izan, baizik eta beste gauza batzurengatik. Kasu honetan, sormen aldetik blokeo moduko bat izan dut eta lagungarria izan zait beste jende batekin lan egitea, ez nuelako lortzen letra neronek ateratzea edo adierazi nahi nuen hori espresatzeko hitzak aurkitzea. Beti da lagungarria elkarlanean aritzea, baina batzuetan errazago ateratzen da eta beste batzuetan ez. Adibidez, Leirek eta Oihanak letra bidali zidatenetik abestia hilabeteetan egon zen geldirik, ez zen ezer gertatu letra horrekin, eta egun batean hartu eta goitik behera sortu nuen kanta. Ez dakit azaltzen ere zergatik eta nola gertatzen den hori, baina horrela izan zen.

**Bestalde, abesti batean Alba Morenarekin kantatu duzu eta beste batean Izaro Andresekin. Zergatik urekin? Nola moldatu zarete?**

Alba Morena sare sozialen bitartez ezagutzen nuen eta banekien abeslaria izateaz gain ekoizlea ere bazela. Sareetan topatu ginen eta harremana sortu zen geure artean. Asko hitz egin genuen, bere esperientzia batzuk kontatu zizkidan eta gogo batetik abiatu zen kolaborazioa. Nahiko modu informalean izan da dena,

**“Beti eduki dut kutsu malenkoniatsua, baina orain erritmoa eta dantza uztartzeko joera edo nahi handiagoa dut”**

nahiko etxekoa. Izaroren kasuan, lagun harremana dugu orain dela askotik eta oso gertuko gauza izan da. Batzuetan kolaborazioetan izen potoloak bilatzen dira ikustaldi gehiago ekarriko dituztelakoan, baina kontrako norantzatik joan naiz. Benetako gauzak izatea eta benetako harremanetatik joatea nahi nuen, ez izatea gauza artifizial bat.

**ekoizle lanetan ere ibili zara, ezta?**

Abesti guztietako ekoizpen prozesuan oso adi egon naiz. Ekoizleek esan zidaten inor ez zela hain adi ego-

'Zainak eman'  
diskoa



ten (barreak). Beraiangandik asko ikasi dut, asko gustatzen zaidalako mundu hori. Egia da gero ez naizela nahiko nukeen bezain trebea, baina ordenagailuan ordu batzuk sartzen ditut. Diskoari hasiera ematen dion abestia, 'Haragi bizitan', etxean sortu nuen, eta zirriborroa erakutsi nienean esan zidaten oso ondo zegoela eta aurrera egiteko.

#### **Arlo horretan sakontzea gustatuko litzaizuke?**

Ez da errealista, ezagutza eta ordu asko falta zaizkidalako, baina arakatu nahi dudana bide bat da, gustatzen zait. Hori bai, ez dut uste bat-batean profesionala bilakatuko naizenik.

#### **Disko honen abesti batzuen zirriborroak Aho uhal' (2021) diskoa atera baino lehenago sortuak zenituen. Nolako bidea izan du azken disko honek?**

Hori ikusi nuenean ni neu ere harritu egin nintzen. Izan ere, konturatu nintzen lehenengo audio horiek nire lagun Borja eta bion arteko trukaketa batzuk izan zirela, eta hori konfinamenduan gertatu zen. "Zenbat denbora daramat honekin?", pentsatu nuen (barreak). Prozesu moteletako pertsona naizela berretsi nuen eta gauzak poliki eta maitasunez egitea aldarrikatu nahiko nuke. Askotan denborak ez digu uzten gauzak zaintzen eta hain justu ere disko honen zentzua hori da: zain hitzarekin hainbeste buelta emanda, kantak ere zaindu ditudala, prozesu guztia zaindu dudala. Egia esan behar badizut, luzea egin zait, argitaratzeko desiatzen nengoen eta dagoeneko fokua hurrengo gauzetan dut jarrita, baina horrela izan behar zela sentitzen dut.

#### **Argitaratu zenuen diskoa eta baita bira hasi ere. Zuretzat zer da hainbeste maitasun eta denbora eskaini diozun sorkuntza bat jendaurrean aurkeztea?**

Hori da honi guztiari zentzua ematen diona. Lau pareten artean zure gauzak egiten egon zaitezke, baina laugarren pareta apurtzen den arte ez dakizu kanta horiek zein bide egingo duten. Beraz, hori da interesgarriena eta politena bizitzeko: beste aldean jendea dagoela ikustea. Beti dago zalantza jendea nirekin egongo den ala ez, eta ikustea jendeak hor jarraitu duela, bai diskoei begira bai zuzenekoei bereziki, oso berezia



## **"Prozesu moteletako pertsona naizela berretsi nuen eta gauzak poliki eta maitasunez egitea aldarrikatu nahiko nuke"**

izan da. Jendearekin konektatzea eta komunitatetxo bat dagoela ikustea polita da. Babestuta sentitu gara. **Diskoarekin bide berriak hartu dituzu. Baita zuzenekoetan ere?**

Bai. Lan handia egin dugu zuzenekoak prestatzen. Alde musikalean musika-tresna elektronikoak eta analogikoak uztartu ditugu. Diskoari ahalik eta fidelenak izaten saiatu gara. Asko kostatu zaigu. Bestalde, badago eszenografia bat eta argi diseinu oso zaindua. Ispilu batzuk agertzen dira eta horrek badu diskoaren metaforarekin zentzua. Estetikoki pisu handia ematen dio zuzenekoari eta baita sinbologia ere.



## Asteburu gazi-goza izan zuten Urbateko talde nagusiek: batek galdu, besteak irabazi

Waterpoloko 2. Maila Nazionalan jokatzeko duen senior mailako Urbateko lehen taldeak jakin izan zuten aurre egiten liderrari Donostian jokatuak azken jardunaldian. Hala ere, Davide Cerchiren taldeak amore eman behar izan zuten Poble Nouren aurrean (7-11). Lehen laurdena amaituta eibartarrek bakarrik 3-4 galtzen zuten; bigarreneko 1-5 partzialak, baina, neurketa erabaki zuten. Hala ere, bigarren zatiko etxekoan aldeko 3-2ko partzialak Urbatek maila eman zuela erakusten du. Gainera, taldeak aprobe...

tu zuten gazte batzuei eta bigarren taldekoiei lekua emateko.

Urbateko senior mailako bigarren taldeak, bestalde, emaitza berarekin (7-11) irabazi zion Laurori eta, horrela, Euskal Herriko Kopako final-zortzirenak bikain gaitduta, Orbean gaur Askartza B taldea izango du aurkari txapelketako final-laurdenetan. Harrobiko taldeak ere nagusi izan ziren euren partiduetan: jubenil mailakoak 16-6 irabazi zion WC Logroñori, eta infantil mistoak 21-4 Urgara Txingudiri.

## Kalamuako judokak Gipuzkoako txapelketan

Aurreko zapatuan Urnietan jokatuak maila horretako Gipuzkoako Txapelketako lehen fasean, gure herriko Kalamua judo klubak lau ordezkari izan zituen finalari begira beharko dituzten lehen puntuak eskuratzeko. Euren artean, Aner Gonzalezek izan zuten egunik onena, hiru garaipen eta porrot bakarrarekin 50 kilorainoko mailan. Sara Azpiazuk, 57 kilora artekoan, garaipen bakarra izan zuten, bi porrotekin. Eta Julen Martinek galdu egin zuten 55 kilora artekoen mailan izandako borroka bakarra, June Valladaresen bi porrot pilotzen zituen bitartean 57 kilorainokoan.



**DEPOR TABERNA**  
I. Etxebarria, 16 943 94 49 17  
deportaberna@deporreilbar.com

- EGUNEKO MENUA  
astelehenetik ostiralera  
13:00etatik 15:00etara
- ASTEBURUETAN  
razioak, otartekoak,  
plater konbinatuak...
- GOSARIAK egunero
- TALDEENTZAKO  
menuak egiten dira

**UNBE KAFETEGIA**  
668 59 61 75

Pintxoak / Tortilak  
Plater-konbinatuak  
Razioak eta  
Otartekoak

MARTITZENETIK BARIKAKURA  
11:00etatik 22:00etara

ZAPATU ETA DOMEKATAN  
09:00etatik 22:00etara

ASTELEHINETAN TEXTU



## Mek Eibar Eskubaloiko talde nagusiek ondo jakin zuten irabazten

Ohorezko Zilarrezko Mailan jokatzen duen Mek Eibarko emakumezkoen taldeak partidu erraza izan zuen azken asteburuan, sailkapenean aurretik duen Kukullagari 27-19 irabazita. Eta 1. Nazional Mailan jokatzen duen Mek Eibarko gizonezkoen lehen taldeak ondo asmatu zuen neurketa kontrolatzen, eta azkenean 22-26 nagusitu zitzaion Barakaldori. Aipatutako emaitzekin, gizonezkoen taldeak bere multzoko 3. postura igo du Romori aurrea hartuz, azken jardunaldian bizkaitarrek Hondarribiak izandako porrota aprobeztatu; eta emakumezkoenak hurrengo denboraldian ere maila horretan jarraitzea segurtatu du, jaitsiera postuak bederatzi puntura lagata.

Ipuruan jokatutako emakumezkoen partiduari dagokionez, lehen zatian erakutsitako defentsa eta



eraso mailari esker atsedendian eibartarren aldeko 15-8ko emaitza erakusten zuen markagailuak. Bestalde, Barakaldon jokatutako norgehiagokan defentsako lana funtsezkoa izan zen partidu guztian zehar eta talde gogileenetako bat 22 golekin lagatzea lortu zuten Fernandoren mutilek.

### Jubenilak garaile

Eibar Eskubaloiko jubencil mailako mutilen taldeak, bestalde, Euskal Ligarako igoera fasea jokatu zuen Legazpin. Promozio fasean lehen postuan geratzea lortu zuten, euren hiru partiduak irabaziz; horrela, Euskadiko Txapelketako hurrengo faserako txartela ziurtatu dute.

## Igoberria den SD Eibarko bigarren taldea lidergora iritsi da berriro

Ekaitzen eta Anartz Amilibiaren golei esker, 2. RFEF Mailan jokatzen duen SD Eibar-ek bigarren multzoko sailkapeneko gorenera egin du jauzi berriro, orain arte liderra zen Arenasi aurrea hartuz. Bi talde horiek, gainera, dagoeneko sei puntu ateratzen diote hirugarren den UD Logroñesi. Iñigo Perezek zuzentzen duen taldeak (iaz arte Vitoria filiala zena) denboraldi bi-



kaina dihardu egiten berarentzat berria den mailan eta, orain arte jokatutako 21 partiduetatik, 13 irabazi ditu, lau berdindu eta beste lau galdu. Multzoko hirugarrenak dira golak sartzen eta bigarren onenak atea babesten. Domekan lidergoa defendatzea egokituko zaio Errioxako Alfaro herrian, bertan sailkapeneko zazpigarren postuan dagoen taldeari aurre egiteko.



LORA ETA LANDARE  
NATURAL ETA  
LEHORRAK  
EZKONTZETARAKO  
LORAK  
ZENTROAK  
ERRAMUAK

*Entzuguak etoera*

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29



Zure publizitatea  
herriko aldizkarian

688 621 535

publizitatea@etakitto.eus

## Profesionaleko binakako txapelketako partiduak hartuko ditu Astelenak etzi

Profesional mailako pilota jaialdia hartuko du Katedralak domekan, justu sailkapeneko ia postu guztiak jokoan daudenean, lehen fasea amaitzeko bi jardunaldi besterik geratzen ez direnean. Jaialdiko partidu nagusian, estelarrean, Aspe enpresako Ezkurdia-Rezusta eta Baikoko Urrutikoetxea-Iztueta bikoteak izango dira lehian, nor baino nor. Urrutikoetxea aurrelariak

Laso titularraren tokia beteko du oraingoan. Martitzenean izan ziren laurak Astelenan bertan pilotak aukeratzen, eta pisu gehiagokoak aukeratu zituzten Aspekoek, Baikokoek arinagoen alde egin zuten bitartean. Hasierako partiduan, bestalde, promozioko txapelketaren norgehiagokan, Salaberria-Gaskue eta Larrazabal-Lizeaga bikoteek neurtuko dituzte indarrak.



Martitzeneko pilota aukeraketan domekan jokatu duten lau pilotariak izan ziren.

## Eskualdeko areto-futboleko arima izandako Jose Ramon Iriarte hil da

Aurreko asteko martitzenean hil zen, 66 urterekin, hiru hamarkadatan Debabarrena eskualdeko futbol-aretoa maila gorenera eramateko ahalegin berezia egin zuen Jose

Ramon Iriarte eibartarra. 1989ko irailean hasi zuen ibilbide hori, ofizialki Elgoibarko San Pedro Futbol Sala taldea sortu zuenean. Urteen poderioz talde hori Elgoibar F.S. taldea bilakatu zen eta, jarraian, CD Debabarrena. Azken talde horrek estatuko 2. Mailara igotzea lortu zuen. 28 urteko lanari agur esan zion Iriartek 2017an, bera presidente zela taldea desagertu behar izan zenean. Argazkian Eibar Kirol Sarietako orduko edizioan, bere modalitateko saria ematen, urtero kale egin barik egin zuena.



## ASTEBURUKO AGENDA

### FUTBOLA

- Emakumezkoen 1. Maila**  
SD EIBAR - Madrid CFF (bihar, 12:00)
- Gizonezkoen 2. Maila**  
Sporting - SD EIBAR (bihar, 18:30)
- Gizonezkoen 2. Maila RFEF**  
Alfaro - SD EIBAR B (etzi, 17:00)
- Emakumezkoen 2. Maila RFEF**  
Racing - SD EIBAR B (bihar, 15:30)
- Gizonezkoen 3. Maila RFEF**  
SD EIBAR C - Beasain (bihar, 15:30)
- Emakumezkoen Euskal Liga**  
SD EIBAR C - Pauldarrak (etzi, 15:30)
- Erregionaleko Gorengo Maila**  
URKI - Aretxabaleta B (bihar, 18:00)  
Lagun Onak B - EIBARTARRAK (etzi, 17:30)
- Erregionaleko 1. Maila (Kopa)**  
URKI B - Iksaberri B (etzi, 18:00)
- Jubenilen Ohorezko Maila**  
San Juan - SD EIBAR (etzi, 12:00)
- Jubenilen Nazional Liga**  
SD EIBAR B - Santutxu B (etzi, 12:30)
- Jubenilen Euskal Liga**  
Romo - URKI (bihar, 17:00)

### ARETO-FUTBOLA

- Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila**  
Eskoriatza - EIBARTARRAK (gaur, 22:30)

### ESKUBALDIA

- Emakumezkoen Zilarrezko Maila**  
Kukullaga - MEK EIBAR (bihar, 20:00)
- Gizonezkoen 1. Nazional Maila**  
MEK EIBAR - Ereintza (bihar, 18:30)
- Emakumezkoen Euskadiko Liga**  
MEK EIBAR B - Zuazo Senior (etzi, 12:00)
- Gizonezkoen Lurraldeko Liga**  
MEK EIBAR B - Aritzbatalde (etzi, 10:00)

### SASKIBALDIA

- Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila**  
Easo - ARTESANOS JUANTXO (bihar, 20:00)
- Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila**  
EIBAR - Luberrri Baserria (etzi, 11:30)

### WATERPOLOA

- Gizonezkoen 2. Nazional Maila**  
URBAT - Badia (bihar, 20:15)
- Gizonezkoen Euskal Herriko Kopa**  
URBAT - Askartza (gaur, 20:15)

### XAKEA

- Gipuzkoako 3. Maila**  
EIBAR B - Tolosa (bihar, 16:00)  
EIBAR C - Altuna y Uria B (bihar, 16:00)

### PILOTA

- Astelena (etzi, 18:00)**  
Salaberria-Gaskue vs Larrazabal-Lizeaga  
Urrutikoetxea-Iztueta vs Ezkurdia-Rezusta  
Exposito-Aldabe vs Mata-Erostarbe

# Beste ehun urterako egin zuen topa Eibarko Klub Deportiboak

Urtarrilaren 30ean agurtu zituzten mendeurrenaren ospakizunak Eibarko Klub Deportibokoek, ekitaldi bereziarekin: 400 eibartarren laguntzarekin, Klub Deportiboaren logotipoa argiekin irudikatu zuten Untzaga plazan, eta mendizale talde batek 100 zenbakia argiztatu zuen Urkon. Ondoren, kalejiran joan ziren Deporreraino eta, beste ehun urterako topa eginda, kantu eta dantza artean agurtu zuten urte osoan ospatzen ibili diren mendeurrena.

ARGAZKIAK



BIDEOAK









## Hilaren 22an hasiko diren aratosten egitaraua eta kartela aurkeztu dute

Patxi Lejardi jaietako zinegotziak eta Jon Iraola Eibarko alkateak aratosteetako egitarauaren eta kartel irabazlearen berri eman zuten atzo goizean egin zuten prentsaurrekoan. Agintariek herriko eragileen parte-hartzea eta lana goraiatu zuten, eta herritarrei ekin-tzetan parte-hartzeko deia egin zieten.

Koko-eske eta koko-dantzek emango diete hasiera aratosteei, eta gero etorriko dira Eguen Zuri eskolen kalejirarekin (hilaren 27an), Aratoste Barixakua kaldereroekin (hilak 28), egun osoko jaiak bihurtu den Aratoste Zapatua (martxoak 1), Aratoste Domeka...eta kitto!-ren play-back lehiaketarekin (martxoak 2) eta Aratoste Martitzena sardinaren entieru txikiarekin (martxoak 4).

Aratosteak iragartzeko, Nora Gondat Unzalu pasaitarrak sortutako kartela aukeratu dute. 'Zahar eta berri' izenburua du eta bere originaltasuna nabarmendu dute. 14 urte artekoen mailan Itziar Eiriz Vila izan da irabazlea 'Hartzaren mozorro gozoak' kartelarekin, eta 10 urte artekoen mailan Uxue Alberdi Azurmendiren 'Gora puxikak' lana aukeratu dute.



## “Pizpirri” diskoa aurkeztuko dute Arrate Kultur Elkartearen otsailaren 14an

Arrate Kultur Elkarteak hainbat jarduera antolatu ditu datozen egunotarako. Hasteko, astelehenean, hilak 10, kantu saio irekia egingo dute Arrate Kultur Elkartearen lokaletan, 19:00etan, euskal kantu tradizionalak praktikatu nahi dituztenentzat. Gogoratu nahi dute hamabostean behin egingo dituztela kantu-saioak, beti astelehenean, toki eta ordu berean.

Eguaztenean (hilak 12), berriz, Urteko Batzar Orokorra izango da, 18:00etan lehen deialdian, eta ordu erdi geroago bigarrenan, Bazkide guztiak daude deituta bertan parte hartzera, eta 2024ko kudeaketa eta 2025erako proposamenak landuko dira bertan.

Eta barixakuan (hilak 14), 18:30ean, “Pizpirri. Pozgarri eta pizgarri”, Amaiur Irarik bere aita Harriet Irarikin batera sortutako diskoaren aurkezpena egingo da. Azaldu dutenez, “aita preso baten eta bere alabaren arteko historia da, espetxealdian sortutako 10 kantek osatzen dute, hainbat euskal artisten ahotsetatik abestutak. Diskoa ez da atera musikari batek sortutako notak eta hitzak batzearekin soilik. Diskoaren abiapuntua zeharo ezberdina da: haur motxiladun baten eta aitarien arteko bertso eta olerkiak ditu oinarrian, hogei urtean telefono deietan eta bisita laburretan grabatuak”. Diskoaren sortzailea bera etorriko da aurkeztera, eta diskoa bertan erosteko aukera egingo da.





## “Gora musika!” ikuskizuna eskainiko dute hilaren 22an

Familiei musika eta euskara hurbiltzeko asmoz Gora musika! taldeko Urko eta Oianek (lehengo Ene Kantak) ikuskizuna eskainiko dute hilaren 22an, 17:00etan, Coliseo antzokian. Emanaldi oso berezia izango da, eta Eibarko Musika Bandak, Eibarko Musika Eskolak eta Soralueko Gaiteroek ere hartuko dute parte emanaldian. Gora musika! taldekoek diotenez, “balorez betetako istorio musikatua, norberaren gorputzarekiko maitasuna eta besteekiko errespetua lortzeko helburuarekin”. Sarrerak salgai daude dagoeneko, 5 eurotan, eta salmenta oso azkar doa. Internet bidez zein antzokiko leihatilan erosi daitezke.

## “La Blues Company” taldeak kontzertua emango du gaur, Musika Klubaren eskutik

Ñaco Goñi (armonika), Paul San Martin (pianoa, ahotsa), Edu Bighands (gitarra, ahotsa), Fernando Beiztegui (gitarra, ahotsa) eta Marti Elias (bateria) musikoek osatzen duten taldea Coliseo antzokian



arrituko da gaur, 19:00etatik aurrera. Eibarko Kulturak antolatu du emanaldia eta, diotenez, “La Blues Company-ren lehen lanak aise betetzen ditu erreferentziako disko bihurtzeko behar diren baldintza guztiak. Zuzeneko lana da, oktanaje handikoa, usadio zaharrari jarraituz eta musikari mitiko batzuen nortasun paregabearekin egina”. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



## “Bizitza onerako alternatibak” erakusketa zabaldu dute Andretxean

Lumaltik Herriak elkarteak Gipuzkoan egindako topagune eta prestakuntza ardatz dituen *Bizitza onerako alternatibak* erakusketa zabaldu dute Andretxean. Lumaltik Herriak GGKEak, beste kolektibo batzuekin batera, iaz Gipuzkoan egindako lan eta heziketa prozesuetan bideratutako hausnarketetatik abiatuta sortutako material bisualak eta gogoetak biltzen ditu erakusketak. Aurkezpenean esan zuten, “askotarik emakumeen jakintzak eta esperientziak hainbat espazio ezberdinetan azalratzea izan da proiektuaren funtsa, herri ezagutza prozesu politiko eta eraldatzaile gisa ulertuta”. Apirilaren 29ra arte egongo da zabalik, eta aurrerago bisita gidatuak eskainiko direla aurreratu dute.




## Dolores Ibarruri izango da protagonista Pagatxaren bideo-forum saioan

Pagatxa emakumeen elkartearen eskutik, martitzenean Emakumeen Istorioak egitasmoko emanaldia eskainiko dute Andretxean, 18:00etatik aurrera. Saio horretan Dolores Ibarruri “La Pasionaria” nor izan zen ezagutzeko aukera egongo da, Patricia Perex Coto-k dinamizatuta. Bideo-forum saioa nahi duen edozeinentzat atek zabalik egongo da, eta sarrera doan da.





AURKITU DESBERDINTASUNAK



L A B I R I N T O A

		2			3		
2				7	1		
9	5	4					
	7		1			2	
4		6			5	1	
5			7			4	
					8	6	3
		2	6				5
	8			5			

2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2

soluzioa

S U D O K U

2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2

soluzioa

		3	1	8		6		
					6	2		
				4			7	5
	8		5				2	
9	2					4		3
	4				3			9
2	7			5				
		5	9					
		8		6	7	9		

# Otsailak 7 - 13

## BARIXAKUA 7

### BARIXAKUAK JOLASIAN

**17:00/18:00** 2 eta 8 urte bitarteko umeentzat jolasak, euskaraz, begiraleen laguntzarekin. Antolatzailea: ...eta kitto! Euskara Elkarte. Doan. Txaltxa Zelai.

### MUSIKA KLUBA

**19:00** La Blues company. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.



## ZAPATUA 8

### ASTELENA HAUR PARKEA

**11:00/14:00 eta 16:30/20:30** Astelena Haur Parkea. Astelena frontoia.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30** Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzan dabiltzaten umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegia.

### TAILERRA


San Blas tailerra. Izen-ematea otsailaren 7ra arte. Indianokua gaztelekua.



## DOMEKA 9

### ZALDIBAR ARGITU

**12:30** Hondamendiaren 5. urteurrena dela eta, Zaldibar Argituk antolatutako ekitaldia. Eitzaga auzoa.



### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30** Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzan dabiltzaten umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegia.

### PATINAK IPURUAN

**17:45/19:45** Patinak Ipuruan. Ipurua kiroldegia.

## ASTELEHENA 10

### KANTU SAIO IREKIA

**19:00** Euskal kantu tradizionalak ikasteko. Arrate Kultur Elkarte.



## MARTITZENA 11

### LITERATURA

**19:00** Idazlearekin Harixa Emoten: Yolanda Arrietaren "Etxe bat norberarena" liburuari buruzko solasaldia. Dinamizatzailea: Ainhoa Aldazabal. Portalea (Bartzatoki 1-2).



## EGUAZTENA 12

### URTEKO BATZARRA

**18:00** Arrate Kultur Elkartearen urteko batzarra, bazkideentzat (bigarren deialdia 18:30ean). Elkarteko Urteko Batzar Nagusia: 2024ko kudeaketa eta 2025erako proposamenak. Arrate Kultur Elkarte.



## EGUENA 13

### URTEKO BATZARRA

**10:00** Ikasten elkartearen bazkideen urteko batzarra. Armeria Eskola.

### IKASENPRESA AZOKA

**10:00/13:00** Lanbide Heziketako ikasleek sortutako era guztietako produktu eta zerbitzuak. Untzaga eta Txaltxa Zelai.



### ODOL-EMATEA

**16:50/20:50** Odola ematera joateko saioa, odol-emaileentzat. Untzaga jubilatutako etxea.

### IKASTAROA

**18:30** Gantxoak egiten ikasteko. Irakaslea: Laura Albistegi (Gigil). Antolatzailea: ...eta kitto! 7 euro (5 euro bazkideek). ...eta kitto!-ren lokala.

## ERAKUSKETAK

Otsailaren 16ra arte:

- "Ibilian jarraitzea" **ANTON HURTADO**ren pintura erakusketa. (Portalea).

Martxoaren 30era arte: - "EIBARKO ITSAS ABENTURA". (Eibarko Armagintzaren Museoa).

Apirilaren 29ra arte: - "BIZITZA ONERAKO ALTERNATIBAK". (Andretxea).

# ZINEA COLISEO

## 1 ARETOA

- **8an:** 19:45, 22:30
- **9an:** 20:00
- **10ean:** 19:30

**“Cómo hacerse millonario”**  
KOMEDIA



2024/Tailandia/126'  
Zuzendaria: Pat Boonitipat  
Protagonista: Putthipong, Usha Seamkhum, Sanya Kunahorn  
**Gaixotasuna / Herentzia / Amama**

## 2 ARETOA

- **8an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **9an:** 17:00, 20:00
- **10ean:** 19:30

**“El profesor de esgrima”**  
DRAMA



2023/Frantzia/101'  
Zuzendaria: Vincent Pérez  
Protagonista: Roschdy Zem, Doria Tiller, Guillaume Gallienne  
**XIX. mendea / Eskrima / Duelua**

## ANTZOKIA

- **8an:** 17:00 (1), 19:45, 22:30
- **9an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **10ean:** 19:30

**“La acompañante”**  
DRAMA



2025/AEB/97'  
Zuzendaria: Drew Hancock  
Aktoreak: Sophie Thatcher, Jack Quaid, Lukas Gage  
**Zientzia fikzioa / Robotak / Thriller**

## ANTZOKIA

- **8an:** 17:00
- **9an:** 17:00

**“Azerik eta Erbik basoa...”**  
ANIMAZIOA



2024/Herbehereak/71'  
Zuzendaria: Mascha Halberstad  
**Abenturak / Animaliak / Zine familiarra**



## Iban Lezea Artamendi

2025/02/02

**Mendi ta golferixak.  
Zaratia ta barriak.  
Eta orain... hutsunea!**

**Eskerrik asko, Iban:  
erreza izan dok hire  
laguna izatia!**

- HIRE LAGUNAK -


\*\*\*  
**FUNEUSKADI**  
Grupo Ansoa



\*\*\*  
**TANATORIO EIBAR**

\*\*\*  
**FUNERARIA MUGICA**  
Funerariak



\*\*\*  
**FUNERARIA MUGICA**

**24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951**  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

<p><b>Eibar:</b> Otaola, 27</p> <p><b>Eibarko bulegoa:</b> Bidebarrieta, 20</p>	<p><b>Elgoibar:</b> Kaxilorr, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p><b>Ermuako bulegoa:</b> Marqués de Valdespina, 16</p>
---	--

**Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao  
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao**



943 20 67 76  
aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da...**eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak, **HAIZEA**, hillaren 10ian 5 urtetxo beteko dozuz eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **NORA**, atzo 7 urte bete zenuaz eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **NIKO!** Bixar urtetxua!! Zu zeu oparirik onena: iaztik pozez zoratzen gaaz zurekin. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **ANE**, domekan 11 urte beteko dozuz eta! Musu potolo bat famelixaren eta, batez be, Pabloren partez.



Zorionak, **LIBE**, astelehenian 11 urte beteko dozuz eta. Musu haundi bat etxeko danon partez.



**ADRIANA** gure etxeko printzesak atzo 4 urte egin zittuan. Zorionak asko maitte zaittuen famelixaren partez.



Urte askotarako, **XARE** Txuki!!! (6 urte). Bat gehixau, **TIA** Txortxi!!! (43 urte). Eta zorionak **SUHAR** Jau!!! (9 urte). Jarraittu topera bizitzen eta ez ahaztu... Maitte zaittuegu!!



Zorionak, **DIEGO** (47 urte hillaren 3an) eta **IBAI**txo (8 urte hillaren 9xan)!! Egun zoragarriak izan!! Maite zaittuegu!



Zorionak, **EKHI** eta amama **ELENA**, gaur urtetxua eta 66 urte betetzen dozuez eta! Patxo haundi bat famelixako danon partez!



Zorionak, **LOURDES** Burgos, domekan urtiak beteko dozuz eta. Topa-Lekuko lankidiak, Marilokas-ekuak, Zaharrak-eko lagunak, Aixolako korrikalarixak... guztion partetik.



Zorionak, **NINBE!** Zapatuan 2 urtetxo beteko dozuz eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **ARIANE!** Eguaztenian 18 urte bete zenuaz eta! Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Ongi etorri, **ELENE!** Urtarrillaren 25etik gure artian zagoz eta. Patxito bat famelixaren eta, batez be, zure anaixa Enekoren partez!!

www.aldatze.eus

aldatze  **ALDATZE DENOK GARA**

MATRIKULA -IZEN EMATEA-  
otsailaren 3tik 14ra





# Iragarki laburrak



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskajerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Abontzan. 625071888.

### 3.2. Errentan

- Lokala edo garaje bikoitz itxia hartuko nuek alokairuan. 631092003.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 608401590.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 611215176.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 602613594.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, umeak zaintzeko eta tabernan jarduteko. 641910253.
- Neska eskaintzen da etxeko garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko 13:00etatik aurrera. 620757528. Arrate.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. 614104599.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. 624545008.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 633365036.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (tituluarekin) eta garbiketarako egiteko. Externa. 631907532.
- Eibarko neska euskalduna eskaintzen da arratsaldetan umeak zaindu eta ikastolako etxeko lanak egiten laguntzeko. 617 804844. Elene.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauetz eta ospitalean ere. 632844780.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 639107272.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 602626391.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita as-teburuetan eta interna bezala ere. 642852854.
- Gizon arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. 632708954..

### 4.2. Langile bila

- Kamarera/oa behar da jatetxe batean. Zapatu arratsaldea eta gau eta domeka osoa libre. 627778980. Feli.
- Durangoko hortz-klinika batek higienista behar du. Jardunaldia adosteko. Interesatuek bidali CVa: rrrhpersonal.clinicadental@gmail.com
- Emakume arduratsua behar da nagusia zaintzeko Soraluzen. Esperientzia baloratuko da. Astean 20 ordu: aste-lehenetik ostiralera 3 ordu arratsalde eta larunbatetan lanaldi zatitua. 666629274.
- Odontologo orokorra behar da Mendaroko Hortz Klinikak batean. Jardun partziala adosteko. Euskaraz jakitea eta odontopediatrian ezagutzak izatea baloratuko da. CV-a: odonto2025@gmail.com
- Ileapaintzailea behar da Elgoibarren. Jardun erdirako edo osorako. 634261485.
- Laguntzailea behar dut bulego lanetan laguntzeko. luen-go41@gmail.com

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Binilozko LPak eta singleak erosiko nituzke. Baita 1985era arteko Euskal Herriko dantzalekuetako pegatina, poxpokaxa, posabaso eta sarrerak ere. 688624326.

### 6.2. Eman

- Bainuontzirako aulki birakaria oparitzen da. 615761830.

# FERIA · AZOKA



## 2025 IKASENPRESA



LANRIDE HEZIKETAKO  
IKASLEEK SORTUTAKO ERA  
GUZTIEKAKO PRODUKTUAK  
ETA ZERBITZUAK!

### Otsailak 13

10:00 / 13:00 h

EIBAR · UNTZAGA PLAZA



ikasempresa

Ikasentzako enpresa  
Eragarriak eta enpresak

iTient

Ikasentzako enpresa  
Eragarriak eta enpresak  
Eragarriak eta enpresak



EUSKO JAGULARITZA  
GOBIERNO VAICO

Ikasentzako enpresa  
Eragarriak eta enpresak

Fp

IKASENTZAKO



EIBAR

Ikasentzako enpresa

#feriaikasepresa | @L.Tient



## ONGI ETORRI

Informazio+  
ongietorri@etakitto.eus  
943200918

# B ERBETAN

- ✓ Zergatik da garrantzitsua Ongietorri programan izena ematea? Zer eskaintzen dizu?
- ✓ ¿Por qué es importante participar en el programa Ongietorri? ¿Qué es lo que ofrece?
- ✓ Why is it so important to participate in the Ongietorri program? What can it offer me?
- ✓ Pourquoi est-il important de participer au programme Ongietorri? Qu'offre-t-il ?

✓ چمانوب هیف تکرارشملا مهمللا نم اذامل  
؟ مدقی اذامل





# Aurrematrikulak

HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO  
BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN

## Otsailaren 3tik 14ra



URRIZKU 943 89 91 47



SAN ANDRES 943 20 79 95



J.A. MOGEL IKASTOLA 943 20 84 87



ARRATEKO ANDRA MARI 943 20 72 35



AMAÑA 688 68 72 89

### EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

Toki hau ikasteko,  
deskubritzeko eta etorkizunerantz  
hazteko leku magiko bat da.  
Etorriko?

### AURREMATRIKULA EGITEKO EPEA

Otsailaren 3tik 14ra zabalik

AURREMATRIKULA ONLINE  
[www.euskadi.eus/hezkuntza/](http://www.euskadi.eus/hezkuntza/)

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
HEZKUNTZA SALA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACION



EIBAR BHI 943 89 92 62  
JARDIÑETA, 3 B [www.eibarbhi.eus](http://www.eibarbhi.eus)  
DBH 3, 4 + Babilergoak + ZIG



EIBAR BHI 943 89 92 21  
ISASI, 37 [www.eibarbhi.eus](http://www.eibarbhi.eus)  
DBH1, 2 + Gautenako gela orokorra